

2. Hizkuntzaren historiaren periodizazioa eta ikerketarako lanabesak

1. Euskal testu corpusaren izaera eta egoera.— 2. Periodizazioa.

1. Euskal testu corpusaren izaera eta egoera

Aurreko gaian argudiatu dugun bezala, hizkuntza baten historia aztertzeko, ikertzailea datuetatik abiatu behar da, hizkuntza horren *corpusa* deritzagunetik, alegia. Corpusa abiapuntua izanik, beraz, lortu ahalko dituen ondorioetan garrantzi handia izango dute bi aurrebaldintzak: corpusaren izaerak eta haren egoerak.

Corpusaren izaerarekin adierazi nahi dugu bai denboraren aldetik, bai edukiaren aldetik nolakoa den testu-corpusa. Denboraren aldetik corpusaren antzinasunari eta besarkatzen duen denbora tarteari begiratu behar zaie; edukiaren aldetik datuen dentsitateari, jarraiketasunari eta ñabartasunari, nahiz dialektoen, nahiz hizkuntza-mailen, nahiz testu moten aldetik.

Corpusaren egoeran sartzen dira, berriz, testuak eskura daudenentz, edizio kritikoak egin direnentz, eskaintzen dituen askotariko datuak bildu edo landu direnentz...

1.1. Euskal testu corpusaren ezaugarriak

Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak lau dira: berankorra, urria, asimetrikoa eta homogenea. Izenondok argi adierazten dute corpus eskas batekin jokatu behar dugula corpus aberatsagoak dituzten hizkuntzekin konparatuta; hala eta guztiz ere, munduko hizkuntza askok corpus eskasagoa dutela, azken urteotan hil aurretik bildutako apurrak baino ez dituztela edo are batere corpusik ez dutela kontuan izanik, ez dago zertan kexatu ere.

1.1.1. Oso berankorra

Badakigu dagoeneko euskararen historia adiera hertsian 1545ean hasten dela (500 urte baino gutxiago) eta protohistoriaren laguntzaz Kristo ondoko lehen mendeetaraino heda dezakegula (2.000 urte inguru).

Oso berankorra dela diogunean, konparatzen ari gara berak baino historia luzeagoa duten hizkuntzekin, jakina. Betiko hizkuntza handietara jo gabe, gogora dezakegu literatura katalana Erdi Aroan jaio zela, literatura probentzalaren ildotik. Lehen testuak IX. mendekoak izan arren, gurearekiko katalanak duen alde handiaz jabetzeko, aski izango da Ramon Llull (1235 - h. 1316) aipatzea, literatur katalanaren aita. Etxepare 1480 inguru jaio zenez, esan dezakegu 250 bat urte kentzen dizkigula honek.

Katalanaren historia ez da ezer, indoeuropearekin erkatzen baldin badugu, batez ere katalana bera indoeuropearen zuhaitzak izan dituen azken adaxketatik bat baino ez dela kontuan izanik: beste hizkuntza indoeuropar bat, hitita, K.a. II. milurtekoan lekukotzen da.

Indoeuropea hain historia luzea duten salbuespen bakanetako bat baino ez da, baina. Azaleko ideia bat bederen egiteko, munduko hizkuntz familietan familia semitikoa da historikoki hobeto lekukotua dena, etengabeko dokumentazioa baitu K.a. 2500. urtetik gaur arte, hau da, 4.500 urteko dokumentazio jarraia du. Txinerak 3.500 urtekoa du, eta grezierak 3.400ekoa; egipziera zaharreko lehen idazkietatik eta haren ondorengo koptoeraz idatzitako azken testuak arte 3.200 urteko tartea dago.

Hala eta guztiz ere, testu tradizio guztiak berankorrak dira ordezkatzeko duten hizkuntzarekiko. Giza hizkuntza sortu zenetik milaka urte igaro ziren idazkera sortu arte (cf. 3. gaia): duela bost mila urte inguru agertu ziren lehen idazkerak Sumer-en eta Egipton. Eta, dena dela, badira XX. mendera arte erregistro idatzirik ez duten edo, areago, gaur egun ere idatzi gabeak diren hizkuntzak ere. Adibidez, inguxera, Inguxetiako hizkuntza (Kaukasoko iparraldean), XX. mendean hasi zen idazten.

Hizkuntza gehien-gehienek era batera edo bestera historiaurre luzea dute, bada. Gogoan izanik "hizkuntza" eskuarki kontzeptu politikoa dela, salbuespen bakanetako bat ematekotan afrikaans aipa dezakegu: Hegoafrikar Errepublikaren hizkuntza ofiziala da, nahiz jatorriz nederlanderaren aldaera bat izan, 1688an errefuxiatu higanotak El Cabora iritsi zirenetik aurrera eratua; jadanik El Cabon 1750ean zen mintzatua, baina 1875ean bakarrik baztertzeko hasi zen nederlanderaren literatur hizkuntza gisa. Honen antzeko historiaurre motza dukete kreolera eta pidgin modernoek ere.

Dena den, testuetan oso gaztea den hizkuntza baten historia askoz zaharragoa den batena bezain zaharra izan daiteke. Adibidez, suomieraren lehen lekukotasuna (1543) ezin gertutago dago euskararenetik. Haatik, euskarak latinetik bezala, suomierak baditu germanikotik hartutako mailegu oso zaharrak, are VI. mendean hasten den tradizio idatzi germanikoa baino zaharragoak: orotara, testuak baino 1.200 bat urte lehenagoko garaiaz hitz egiteko bidea ematen diote maileguok suomierari eta, beraz, adiera zabal batean suomieraren historia beste hainbeste urte aitzinatzen dute.

1.1.2. Oso urria

Guztira, 1900 urteko euskara idatzi argitaratua oso corpus urria da. 1745 baino lehen ez bide dira 500 orrialde izango Hegoaldean eta 5.000 bat Iparraldean, ziurrenik goitik jota.

Ez dute Lope de Vega idazle espainiarraren corpora bera ere berdintzen, komedietan bakarrik 314 ziurak baititu, eta beste ehun bat halako ziurtasun batez egotziak, gehi 3.000 soneto inguru, besteak beste.

Kalkulatu da Ramon Llull-en idazlanetan katalanezko 7.000 hitz inguru lekukotzen direla (*Larousse*). Shakespeare-netan 15.000 hitz inguru.

Altunak (1979) egin zuen Etxepareren lexikoiarekin kalkulu azkar batzuk eginez, gehienera jota 1.300 item daudela esango nuke, izen bereziak (*Iesukristo, Iosafat...*), aditz laguntzaileak (**edin, *ezan...*), bestelako gramatika partikulak (*bait-...*) eta aldaera nagusietarako deiak (*ik(husi): cf. ek(h)usi*) barne.

Arestik (1973) egin zuen Leizarragaren lexikoian beste hainbeste eginez, 5.300 item ateratzen zaizkit, baina hemen toponimo eta antroponimoak ugari baino ugariago dira. Adibidez, lehenengo orrian *Aaron, Abacuc, Abaddon, Abdias, Abel, Abiathar, Abilene* eta *Abraham* daude.

Jakina, iturrien tamaina edo datuen urria ez da datu bakarra historian aurreratzeko, baina bai oso kontuan hartzekoa.

1.1.3. Oso asimetrikoa

Ez daude euskalki guztiak berdin ordezkaturak, ez denboran zehar, ezta lekukotasunen tamaina eta garrantzian ere. Are gutxiago azpieuskalkiak eta hizkerak, jakina. Hona hemen zein euskalki lekukotzen diren mendeka:¹

XVI. A, B, L, BN

XVII. B, GN, L, Z

XVIII. A, B, G, GN, L, Z

XVI.ean lau euskalki ditugu ordezkaturak, eta Lazarraga, RS, Leizarraga eta Etxepare bezalako obrekin, hots, oso arkaismo interesgarriak eskaintzen dituzten testu zabalekin. Hala ere, haietan bik bakarrik (B, L) dute etengabeko historia euskara arkaikotik modernora.

Behenafarreraren lehen lekukotasuna Etxepare bera da; alabaina, hurrengo lekukotasun luzea aurkitzeko 237 urte itxaron behar, Oztibarreko hizkeraren ordezkari bide den eta “Alphonsa Rodriguez” deitu ohi dugun itzulpena arte (1782; Camino 2013).

Arabako euskarari dagokionez, Lazarraga agertu denetik Euskara Arkaikoan ordezkaturak bada ere, harrezkero testu txiki gutxi batzuetan baino ez da lekukotzen, eta mende eta erdiko aldearekin (Gamiz c. 1760, Albeniz 1778), XVIII. mendearen erdialdetik aurrera mendebalde muturreko salbuespen haziak badira ere (*Dotrinazko sermoitegia*, c. 1775; Laudioko dotrina, 1828). Joera bat dator euskalkiaren gainbeherarekin, baina, dena dela, haren datuak ezin garrantzizkoagoak dira Lacombe eta Uhlenbeck-ek bizkaiera eta gainerako euskalkien artean jarri nahi zuten muga deusezteko eta Mendebaleko euskara nola sortu eta garatu izan den ulertzeko (cf. 8. gaia): hobe genuke material zahar gehiago bagenu.

XVII. mendera arte itxaron behar dugu goinafarreraz idatzitako lehen testu zabalak aurkitzeko (Beriain 1621), Sancho de Elsoren dotrina galdua (1561) agertu bitartean, bederen. XVII. mendetik atzera ia ez dugu zuzenean lekukotzen, beraz, Erdi Aroan euskal gune garrantzizkoenetakoa bide zenaren euskara. Azkenotan testu txiki ugari (ezkontitzak, irainak, etab.) argitaratu dira (cf. Maiora 2011), batzuk lehenagokoak.

Gipuzkerari buruzko aski den adinako informaziorik ez dugu aurkitzen Otxoa Arinen dotrina arte (1713). Honek esan nahi du 300 bat urteko historia baino ez duela gipuzkerak. Eta, halaz ere, XVIII. mendean bertan oso gutxi dakigu euskalki honetaz 1745 baino lehenagokoari dagokionez:

XVIII. mendearen lehen erdian 8 liburu

1745 baino lehen 3

XVIII. mendearen bigarrean 50etik gora

XIX. mendean, Bonaparteri esker, artean dokumentatu gabeko hainbat hizkerak lehen lekukotasunak erdietsi zituzten. Halere, artean Araban (XVIII. mendean zehar) eta Nafarroan (XIX. mendean bertan) euskara larriki galtzen hasia zenez, lurralde hauetako hizkera anitz lekukotasun zuzenik utzi gabe hil ziren, lehenago Erdi Aroan Errioxakoak eta Erronkaritik ekialderagoko Pirinioetakoak bezala, besteak beste.

¹ A = arabera, B = bizkaiera, BN = behenafarrera, GN = goi-nafarrera, L = lapurtera, Z = zuberera. Tradiziozko izenak erabiltzen ditut nahita, esangura batez ere geografiko batekin. Geroago ikusiko dugunez (ik. 8. gaia), denboran atzerago eta euskalkien mapa ezberdina izango zela jakintzat eman behar dugu, baina oraindik ez dugu garai ezberdinetako euskalkiei buruzko hipotesirik.

1.1.4. Oso homogenea

“Homogeneo” hitza ez da positiboki ulertu behar. Aitzitik, zehazki honek esan nahi du 1900 baino lehenagoko euskal testuen %80-90a erlijio testuak direla:

Ezin esan gure literaturan deboziozko liburuak gehiegi direnik. Diogun, bada, bestelakoetan eskas gabiltzala (Mitxelena 1953 = *MEIG* V, 36).

Eta geratzen den ehuneko txikian ere ez dago denetatik:

...lehen aldiz argitaratutako obrak bakarrik harturik, guztira 326 baino ez dira 1875era bitartean argitaratuak. Horietatik itzulpen-moldaketak ken balitez, eta literatur parametro hutsetan ezin sar litezkeenak ere iragazi ondoren, nekez irits litezke dozena batera zinezko literatur obratzat har daitezkeenak (Salaberri Muñoa 2002: 18).

Katalan zaharrak, adibidez, Lull-en filosofiazko testuez eta gai ugaritasunaz gainera, badiu kronikak (prosa historikoa), zaldun nobelak (Joanot Martorell-en *Tirant lo Blanch* ezaguna, esaterako, XV. mendekoa) eta lirika ugari eta landua, gehi “dokumentu feudalak” deritzenak (jauntxoek zinak) eta zuzenbideko itzulpen edo egokitzapenak ere, besteak beste.

Edonola ere, beste hizkuntzetan kontuak ez bide dira oso ezberdinak arlo honetan, baina homogeneotasunari urritasuna gaineratzen badiogu, orduan bai, oso esanguratsua izan daiteke, erabakigarria, aurkituko ditugun datuen murrizgarri handia.

Nabarienetik hasita, lexikoan nekez egongo dira arlo guztiak ordezkaturik edo, baleude ere, hutsune larriak egongo dira. Esate baterako, gure idazle zaharrenek adibideetarako kanpoko ereduak jo ohi zuten, maiz Biblian eta bestelako testuinguru erlijiosoetan agertzen diren animaliak aisago aipatu zituzten, Euskal Herrikoak baino; beraz, lehoiak eta elefanteak XVI. mendean agertzen dira euskal testuetan, baina igarabak eta untxiak ez dira agertuko 1745ean Larramendik *Hiztegi Hirukoitz*-ean jaso arte, eta testuetan agertzerako beste mende bat igaroko da:

lehoi (*1562, 1762; *lehoi* 1571, *lehoñ* 1627, ap. *EH*)

elefante (*1562, 1653; *elefant* 1630, ap. *EH*)

igaraba (*1745, 1847; *igarabi* 1802, ap. *EH*)

untxi (*1745, 1842, ap. *EH*)

Blancok (2014) ikusi du literatur generoak ere eragina duela jasotako corpusaren nolokoa: izan ere, Euskara Arkaikoaren corpusa aztertutik ageri da Leizarragak eta Lazarragak beste testuek baino mailegu portzentaia handiagoa dutela; atsotitzetan (*RS* eta *Oihenart*), aldiz, ondare zaharreko hitzen portzentaia gora egiten du.

Halaber, literatur generoak badakar egitura sintaktiko batzuk erabiltzea edo ez, baita paradigma morfologiko zenbait ere. Adibidez, gure corpusean gehien errepikatzen den generoa kristau dotrina da: hizkera askoren lekukotasun bakarrak horrelakoak dira. Dotrinak herri xehearentzat eginak direnez, mendeko perpauk gutxi aurkituko ditugu: gehienak laburrak eta bakunak izango dira. Halaber, dotrinetan agintera bai, baina alegiazko baldintza nekez agertuko da, edo ez da agertuko, zeren eta horrelakoetan kristau fedeak ziurtatzen dituenak eta agintzen dituenak estu-estu jasotzen baitira, subjektibotasunari (*balitz*, *balego*...) lekuri utzi gabe.

1.2. Corpusaren egoera

Testu corpusa gutxika-gutxika gehituz doa. Euskal testu zaharrak aurkitzeko zaletasuna esan liteke 1950etik aurrera zabalduz gero, eta gure mende honetan halako sona bat lortu du, hedabideek hauspotua: gogoan hartu lehenik Lazarragaren

aurkikuntza miragarriarekin gertatua (2004), geroago Willughby-ren hitz-zerrendatxoaren lehen argitalpenarekin (2006),² eta berrikiago Materraren dotrinaren *princeps*-aren ezusteko aurkikuntzarekin (2015).³

Hala eta guztiz ere, azken bi mendeetan euskarari buruz idatzitakoa kontuan hartzen baldin badugu, aise ikusten da askoz ere saio gehiago dagoela euskararen etorkiez, ahaideez eta antzekoez, edozein tokitako, edozein garaitako eta edozein testutako hizkeraz baino. Schuchardten bidetik gehiago egin da Luchairerenetik baino.

Hala bada, euskal testu corpusaren egoera —noraino ezagutzen dugun— ez da ona oraindik: ikerketak urri dira eta sakabanatuak, datuak eskuragaitz eta sistematizatu gabeak. Hain eskas ibiltzeak ez du aitzakiarik, corpora bera oso urria izanik, ikusi berri dugunez. 1980ko hamarkadan Unibertsitatean Euskal Filologia adarra (orain Euskal Ikasketak dena) ezartzeak ondorioak izan ditu, jakina; haatik, Bibliak dioenez, uzta ugaria da, baina langileak gutxi.

Ikerketak azken urteotan ugaltu dira, baina zenbat ugariago sakabanatuago zeuden. Ez dago esan beharrik sakabanatzea galga bat baino ez dela alorraren garapenean, lan orokor duinek —behin-behinekoak balira ere— aurrera egiteko oinarri partekatu bat izan daitezkeen bitartean. Denborarekin, barneko historiari dagokiona salbuespenez bete da:

- Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language* artikulua bilduma.
- Trask, 1997, *The History of Basque*, euskararen lehen barneko historia, alde askotatik oso interesgarria, ahalegin erraldoia, baina zenbait gaizkiulertu eta hutsune dituena, egilea ofizioko euskalari ez izateagatik batik bat.
- Martínez-Areta (arg.), 2013, *Basque and Proto-Basque*, gramatika historikoaren hasikin gomendagarria, alor gehienetako *status questionis* bikaina eskaintzen duena.

Kanpoko historiari dagokionez, berriz, dibulgazio mailatik ez gara oraindik aurrera joan:

- Intxausti, 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*.
- Xamar, 2006, *Euskara Jendea*, gehi honetan oinarrituta egin diren sei dokumental ederrak (2013): www.euskarajendea.com.

Biok kenduta, ezer ez. Egiazki, oraintsu arte euskal literaturaren historiak euskararen historiak (ere) balira bezala ulertu eta landu dira kanpoko historiaren ikuspegitik, eta hauekin moldatu behar izan gara duela gutxi arte.

Kontuak zeharo aldatu dira Eusko Jaurlaritzaren babesarekin argitaratu den *Euskararen historia* liburuarekin —Gorrochategui, Igartua & Lakarra (arg.), 2018—, non kanpoko historia eta barneko historia bata bestearekin uztartuta aurkezten diren, gure eskoletan bezalatsu.

Datuak eskuratzea eta sistematizatzea itzelezko lana da, maiz eskergaitza, bestelako lanek berekin dakarten distira aitortu ohi ez zaiona. Eta, hala ere, ezinbesteko lana da, oinarrizkoena. Duela ez hainbeste, edozein testurekin lan egin nahi izanez gero, testua bera non zegoen jakiteko lan handia (edo suerte handia) behar zen, salbuespenak salbuespen. Egia da internetek kontuok erraztu dituela, lehenik liburutegi eta artxiboan katalogoak eskura jarri zirelako, eta gero azkenotan funtsak eurak digitalizatu eta eskegi direlako, baina honek ez du arazoa osoki konpontzen, ezta hurrik eman ere.

² <<http://filoblogia.blogariak.net/2006/11/1664ko-euskal-hiztegi-bat-argitaratu-berri-da>>.

³ <<https://sites.google.com/site/materraedizioa/materra-komunikabideetan>>.

Esate baterako, oraindik ere Gorrochateguiaren tesia (1984) da akitanierazko corpusaren bildumarik osoena, harrezkero aurkikuntzak egin badira ere (cf. 6. gaia). Akitaniera landu nahi lukeenak corpora bere kasa osatu beharko luke. Erdi Aroko corpora are ugariago eta sakabanatuagoa da, balio ezberdineko bilduma zenbait argitaratu diren arren:

- J. Arzamendi, 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbo: UPV/EHU.
- M. Á. Líbano, 1995-2000, *Toponimia Medieval en el País Vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- U. Reguero, 2011, “Erdi Aroko corpora osatzeko ekarpena”, *ASJU* 45-2: 153-233.

Azkenotan Eusko Ikaskuntzak bultzatu duen “Fuentes documentales medievales del País Vasco” bilduma (1982tik aurrera): <> Helburua: Goi Erdi Arotik XVI. mendera arteko Erdi Aroko dokumentazio guztia transkribatzea eta inprimatzea.

Gainerakoan, bi salbuespen mota ditugu: corpusak eta digitalizatzeak. Corpusen eta corpus-bilatzaileen aldetik, *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987-2005), sarean kontsultagai —baina tamalez ez haren oinarri den testu-corpora— eta paperezko bertsioarekin konparatuta on-lineko bertsioan osatu eta zuzendua; bestalde, jadanik aipatu dugun *Euskal Klasikoen Corpora (EGK; lehenago Corpus Arakatzaillea, 2007)*, *Armiarma*-ren testu-corporaren gainean lan egiten duen bilaitzailea <www.ehu.es/ehg/kc>.

Munduko liburutegiak azkenotan euren funtsak digitalizatu eta sarean eskegitzera emanak dira asko eta asko, bakoitza berez edo saretan antolatuta (adibidez, *Europeana*, *Gallica* eta *Hispanica* bezalako bilduma orokorrak daude sarean). Euskal Herrikoak ere bai, jakina; hona garrantzizkoenak:

- LIBURUKLIK Jaurlaritzaren biltegi digitala (www.liburuklik.euskadi.net): Euskadiko hainbat liburutegiren ondarea digitalizaturik herritarren eskura jartzeko asmoz sortua, dagoeneko Sancho el Sabio Fundazioaren, Legebiltzarraren eta Loiolako liburutegiaren hainbat kontu baturik eskaintzen ditu, besteak beste.
- SANCHO EL SABIO FUNDAZIOAREN Liburutegi Digitala: Argitalpen zaharren (eta eskuizkribu zenbaiten) edizio digitalizatuak. (www.euskadi.net/LiburutegiDigitala)
- BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIAREN Liburutegi Digitala: Aurrekoaren oso antzekoa, agian euskal testu zahar (1745 baino lehenagoko) gehiago ditu honek. (bibliotecaforal.bizkaia.net)
- KOLDO MITXELENA KULTURUNEKO LIBURUTEGIA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren liburutegiaren egoitza birtuala (<http://kmk.gipuzkoakultura.eus/eu/liburutegia>), oso aberatsa garai guztietako testuetan. Hemeroteca ere digitalizatu du.
- BIBLIOTECA NAVARRA DIGITAL (BiNADI): Nafarroako Gobernuaren ondare bibliografikoa biltzeko asmoz sortua (http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Bibliotecas/Biblioteca+y+Filmtoteca+de+Navarra/Biblioteca+Navarra+Digital/).
- KLASIKOEN GORDAILUA: Euskal corpora ez du osoki hartzen, baina gero eta gutxiago falta du; argitalpen gehienak grafia gaurkoturik eskegi dira (klasikoak.armiarma.com). Mesede itzela egin digu, beraz. Badu arazotxo bat, ordea: testu gehieneko gutxieneko azterketa kritikoa egin gabe egotea. Grafia gaurkotu izanak bilaketak errazten ditu, baina gaurkotzeak ez dira beti zuzenak. Labur esanda, kontuz erabiltzekoak dira hemengo testuak. Arazo bera du honetan oinarritua den *EGK*-k ere.

Vinsonen lan erraldoiaz gero (1891-1898) ez dugu gehiegi aurreratu testu bibliografian (ikuspegi zabalago baterako, ik. Urgell 2013a). Ez BIBLIOGRAFIA SISTEMATIKOA deritzan alorrean behintzat: Testuak zein diren badakigu, gutxi gorabehera baino ez bada ere, nahiz garai bakoitzean, mende bakoitzean-eta zein dauden argi jakiteko oraindik ere lan handia egiteko egon. Frantziskotarren artxibo aberatsetako euskarazko eskuizkribuak katalogatu ditu Nagore Etxebarriak (2005),

XVIII-XIX. mendeetako lekukotasun ezezagun mordo bat agerian jarririk: bide honetatik zenbat egiteko dagoen ez da esaten erraza. Informazio baliagarri asko eta asko bildu ditu berriki Fernández de Casadevante-k (2015) 1850 artean Gipuzkoan argitaratutako liburuez.

Bestalde, testu bakoitzaren lekukotasunak (kopiak, argitalpenak, aleak...) zenbat diren eta non dauden, honetaz ezer gutxi dakigu gehienetan: besteak beste, ez dugu egiaztatu Vinsonek aipatutako aleetatik zein dauden eskura oraindik, Leizarragaren obretatik hasita. Salbuespenak bakanak dira, eta betiere testu bakar bati edo egile bakar bati lotuak, hala nola Isaak Atutxaren lan eredugarriak Etxeberri Ziburukoaz (1999, 2001, 2002), Axularren *princeps*-aren aleez Salaberri Muñoak egindakoa (2011) eta *AzitiBihia* elkarteak Materraren dotrinaren edizioez burutu berria (<https://sites.google.com/site/materraedizioa/>).

Zertxobait aurreratu da BIBLIOGRAFIA MATERIALEAN, hots, testuaren ekoizpenetik (non inprimatua, nola...) edota haren ezaugarri materialetatik (papera, apaingarriak, etab.) testuari buruzko informazioa ateratzera zuzendurikoan, paperaren ur-markez Koro Seguiolaren lan aitzindariari esker (ik. batez ere 2001). Bide honetatik abiatu da baita K. Ulibarri ere (2009), tako xilografikoak erabiliz *Viva Jesus* dotrina —hegomendebaldeko euskararen lekukotasun goiztar garrantzizkoa— 1640. urtearen bueltan datatzea lorturik. Esan gabe doa ez dagoela ezer sistematikorik euskal liburuen ekoizpenaz; Euskal Herriko inprentaren historiaz, ikus Arana Martija (1994), besteak beste.

Edizioen esparruan, testu asko edizio zaharretan bakarrik ezagutu ditzakegu, baita garrantzizkoenen artekoak ere: adibidez, Axularrekin batera lapurtera klasikoaren gailurtzat daukagun Etxeberri Ziburukoaren hiru liburuetatik baten zati bat baino ez da argitaratu gure garaian, *Manual debozionezkoa*-ren (1627) lehen parte (P. Altuna, 1981), eta behin ere ez literatur gipuzkeraren sortzaile nagusietako bat den Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747). Argitaratu direnak ere ez dira beti behar bezala argitaratu; bestela esanda, oso testu gutxi dira filologi irizpideen arabera argitaratuak: zaharrenen artean, *TAV*-en eta *Contribución*-en bilduak (Mitxelena 1964 eta Sarasola 1983), Etxepare (P. Altuna 1980), Leizarraga (Linschmann & Schuchardt 1900), *Refranes y Sentencias* (Lakarra 1996), Lazarraga (Bilbao *et al.*, 2010), goian aipatu Etxeberri Ziburukoarena, eta besteren batzuk; gutxi halere.

Aitzitik, testu kanoniko bezala dabilen edizio bat baino gehiago ez dira fidagarriak, edo ez nahitaez: Villasanterenak (Axular, Lavieuvilleren dotrina, Mogelen *Cristaubaren icasbidea*...), Akesolorenak (Etxeberriren *Noelak*, Gasteluzar), eta abar. Kanoniko dira Vinsonenak ere Hordagoko faksimileen bitartez (Argaignaratz, Harizmendi, Pouvreau). Edizio hauexek baliatu ditu *OEH*-k eta, azkenik, sarean edonork kontsultagai duen *Klasikoen Gordailu*-ra ere heldu dira, nahiz batzuek arazo ezagunak izan.

Egia da erruz ugaldtu direla azken urteotan “edizio kritikoa” izena daramatenak. Alabaina, hitz horren erabilera fetitxista baino ez da, izenak izana eragingo balu bezala, eta ez alderantziz. Lardaskan egindako “edizio kritiko” bat zer den jakin nahi izanez gero, hor dago Luis Mari Mujikak (Euskaltzaindia, 1986) egin zuen prai Bartolomeren *Euskal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (1816) liburua: Patxi Altunak garai bertsuan (1987) atera zuenarekin erka dezakezu, edota Urgell (1986) irakurri. Hor dago baita Patri Urkizuk Lazarragaren eskuizkribua ezagutzera eman eta hiruzpalau hilabetetan tarrapatata egina ere (2004), irakurketa txarrez, gaizkiulertuz eta azaldu gabeko kontuz betea.

Egoera honetan, agian ulergarria da ez egotea monografia gehiegi testuetan aurki litezkeen hizkuntz ezaugarriei buruz, demagun, XVII. mendeko GN-ren txistukariez, ez beste mende eta dialektotakoez; ez mende bereko Z-ko aditzaz, edo GZ-eko hitz-ordenaz. Eta ulergarria da, nahiko lan zaila baita, hasteko, hartarako erabili beharko lirakeen testuak zein diren jakitea, batetik, eta bestetik edizio fidagarrian ez bada, *princeps*-ean bederen eskuratzea.

Ez ditugu oinarrizko beste hainbat lan, hala nola, oinarrizkoenetik hasita, euskal testuetan erabili izan den ortografi sistema samaldaren historia bat. Azkenotan, behar hau zertxobait berdindu da, Pello Agirrek zubererazko grafia zaharraz (2001) eta Jose Antonio Mujikak (2002) Iparraldekoaz egindako lanekin, besteak beste.

Grafiatik aurrera egitekoak ez dira gutxitzen. Demagun Añibarroren *Geroko gero*-aren argitalpena prestatzeko, Axularrekiko erkaketa osoa egin dugula (cf. Urgell 2001). Bien artean hizkuntzaren aldetik alde handiak daude, baina euskalki ezberdintasun begi-bistakoenez landa (Ax *arno* > Añ *ardau*, Ax *acabatcen du* > Añ *acabetan dau*), morfologiazko zein joskerazko ezer iruzkindu nahi baldin badugu, ia inoiz ere ez dugu aurkituko inolako bibliografiarik. Hiru adibide baino ez:

a) Non eta noiz erabiltzen da *hura* leku zein denborako urruntasuna markatzeko, eta non eta noiz galtzen da erabilera hori —galera baldin bada, eta galdu baldin bada—, nagusiki testuko hurbiltasunari begira *hau* (edo *hori*) erabiltzeko?

Bazen behin gizon bat... Gizon hura iritsi zen... (Ax)
Bazen behin gizon bat... Gizon hau iritsi zen... (Añ)

b) Non eta noiz erabiltzen da instrumentala 'denbora' adierazteko (*lau urtez*)? eta inesiboa (*lau urtean*, *lau urteetan*)? eta absolutua (*lau urte egon zen*)?

c) Non eta noiz hasten da galtzen *bera* izenordain indartuaren (*gizon bera*) eta aposizio modura erabilitakoaren (*gizona bera*) arteko bereizkuntza?

Kontu hauetan ere teoriarik gabeko emaitzarik ez dago. Alabaina, teoriak testuen datuekin erkatu behar dira, jakina, oso politak izanda ere, bestela harearen gainean eraikita egoteko arriskua baitago. Adibidez, bizkaiera gainerako euskalkietatik aparte garatu den antzinako euskara baten ondorioa delako ustearen, are beste hizkuntza bat delako ustearen gainean eraikitzen da HIPERBIZKAIERA deritzan hizkuntza mota, bizkaieraz bizkaierazkoak bakarrik diren ezaugarriak erabiltzean eta beste euskalkietan ere agertzen direnak EZ erabiltzean datzana. Testu zaharretan, berriz, kontrakoa aurkitzen dugu: ez dago *dauz*, *ditu* eta *dituz* baizik, ez eta *ebazan*, *zituan* edo *zituzan* baizik. Zenbat eta atzerago, bizkaiera beste euskalkietatik hurbilago. Beraz, ezjakintasun filologikoa irudi aski faltsuak eratzeko erabil daiteke. Oso zaila da honelako gauzak beren lekuan jartzea testuetara jo gabe.

Barneko historiaren esparruko monografiak duela gutxi arte oso urriak izan dira, beraz. Hona dagoeneko ikerketa klasikotzat jo ditzakegun batzuk:

- René Lafon, 1944, *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, XVI. mendeko aditzaz.
- Rudolf P. de Rijk (1937-2002) eta Larry Trask-ek (1944-2004) zenbait gai maisutasun eta sakontasunaz jorratu dituzte. Besteak beste, hurrengoak:
 - Trask, 1995, “On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque”. J. I. Hualde, J. A. Lakarra & L. Trask (arg.), *Towards...*, 207-234.
 - de Rijk, 1991, “Deux suffixes capricieux: *-pen* et *-men*”. J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia: GFA. 2: 709-752.
- Joseba A. Lakarraren lanetan, agian honakoak:
 - 1983, “Oharrak zenbait arkaismoz”, *ASJU* 17: 43-68.

- 1984, “Bizkaiera zaharreko ablatiboaz”, *ASJU* 18-1: 163-193.
- 1985, “ø / -tu bizkaiera zaharrean”, *Euskeraren Iker Atalak* 3: 281-292.
- 1986, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20-3: 639-682.

Joera aldatzen hasi da 2006tik aurrera, *Monumenta Linguae Vasconum* ikertaldearen doktoregai eta doktoreei esker batik bat. Hona lan esanguratsuetako batzuk:

- Céline Mounole, aditz sistemaren historiaz (2006, etab.; bereziki 2011ko tesia)
- Julen Manterola artikuluaen sorreraz (2006, etab.; bereziki 2015eko tesia)
- Ane Bueno, 2011 [2007], “Nominalizazio atzizki deitutako azterketa historikoa eta morfologikoa”. J.A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell, *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra)*, Bilbo: UPV/EHU: 191-200.
- Endika Blanco, 2014, *Euskal lexikoaren historiarako: ikerketak euskara arkaikoan*. Gasteiz: UPV/EHUko MALa.
- Manu Padilla *iron aditzaz (2013) eta Zuberoako euskarari buruzko tesia (2017)

2. Periodizazioa

2.1. Aurkezpena

2.1.1. Periodizazioa egiteko ohitura eta beharra

Frantsesaren, ingelesaren edo alemanaren historiak irakurtzen ditugunean, bitxi gerta dakiguke jakintsuek nolako ziurtasunaz erabiltzen dituzten *ancien français*, *Middle English* edo *Neuhochdeutsch* (aleman moderno) bezalako berbak. Izan ere, izen horietako bakoitza erabat lotuta dago hizkuntz ezaugarri eta gertakari historiko jakin batzuekin.

Hizkuntza guztiak ez dira hain urrun heldu: adibidez, gaztelaniaren historia lantzen dutenen artean ez dago horrelako ziurtasun erabatekorik, ezta horrelako adostasunik ere, eta ez dira gutxi haren periodizazioa findu beharraz gogoeta egin dutenak (Eberenz 1991, Abad Nebot 1998, Buenafuentes 2002, etab.). Gehienek *castellano antiguo* eta *castellano* edo *español moderno* bereizten dituzte, bien arteko muga 1500. urtearen bueltan jarrita, zeren eta ordutsuan gertakari politiko garrantzitsuak izan baitziren (1492. urtean Amerikara heldu eta Granadako erresumaren suntsitu, 1504an Isabel I.a hil eta Fernando senarraren eskuetan Aragoiko eta Gaztelako erreinu biak gelditu, etab.); kultur alorrean ere, gaztelaniazko literaturaren Urrezko Mendearen hasierarekin ere lotu daitekeen data da. Hala eta guztiz ere, garai zaharraren izenak liburu liburu aldatzen dira (*castellano antiguo*, *español preliterario*, *español medieval*, *periodo primitivo*...), eta ez dago batere garbi bata bestearekin ordezkari daitezkeen ala ez: alegia, “español medieval” eta “castellano primitivo” zehatz-mehatz gauza bera ote dira? Ez dago garbi.

Edonola ere, gertuko hizkuntza hauetan ez ezik, urrunekoetan ere hizkuntzaren historia periodo edo garaitan banatzeko ohitura dago. Ohitura ez ezik, beharra ere badela aldarrikatu dute:

Hizkuntza baten historian izan diren aldaketa nagusiak ulertzeko, periodizazioa ez da bakarrik desiragarri, beharrezkoa ere bada (Tai & Chan 1999, nik itzul.).

Zein aldetatik da beharrezkoa? Alde batetik, eroso da, didaktikoa: edozein ikerketa historikotan garaiak mugatu ohi dira, bata bestetik bereiztearren eta garai bakoitzaren barnean ikergaiak batasun berezia izan dezan. Egia da garaiak ez direla monolitikoak, ezta beren arteko loturarik gabekoak ere: zein ere den historiak aztertzen duen esparrua (gizartea, zientzia, eskulana, hizkuntza...), sakonduz gero erraz ikusten da aldaketa batzuk lehendik datozela, eta beste batzuen eraginak aurrerantzean ere indarrean jarraitzen duela. Hala eta guztiz ere, une batetik aurrera bakarrik sumatu ohi dugu egoera kualitatiboki berria dela, eskuarki aldaketak orduan pilatzen edo inoiz baino garbiago nabarmentzen direlako.

Hala bada, beste hizkuntzetatik ikasten dugu hizkuntzaren historiaren periodizazio egoki bat egitea praktikoa dela, eskola-umeek ere behar izanez gero aldaketa nagusien berri izan dezaten. Horrezaz gain, adituek hizkuntzaren historiarekin lotutako datuak hobeto antola ditzaten ere balio du periodizazioak, berez konplexua dena zati jakinetan banaturik. Eta, *last but not least*, nabarmena da historiaren azterketarako ere onuragarria dela: alde batetik, adituak behartzen ditu hizkuntz aldaketak denboran kokatzera eta, beraz, haien arteko kronologiak ezartzera; bestetik, hizkuntzaren historiarekin zerikusia duten kanpoko historiaren hamaika gertakariaren artean garrantziaren arabera hierarkiak ezartzera ere behartzen ditu. Azken batean, garaiak zorrotzago mugatu eta deskribatu, eta oinarri horretatik abiatuta ondoko analisiak ere errazago egingo dira.

Hala eta guztiz ere, hori lortu nahi izanez gero, bistan da nolana hiko periodizazioak ez digula balio, ez dugula aski arbitrarioki egindako zatikatze batekin, ezta anekdota bilduma batekin ere: eraginkorra izango bada, periodizazioak hizkuntzaren historia argitzeko hipotesi bat behar du izan.

Honelako gauzak kontuan hartuta abiatu zen Lakarra (1997a) euskararen periodizazioa lantzen. Ondoko atalean berak eta bestek periodizazio egoki bat izateko beharrezkoak liratekeen irizpideen gainean esan dituztenak berpasatuko ditugu.

2.1.2. Periodizazioaren oinarriak

2.1.2.1. Kanpoko historia oinarri

Adituak ados daude hizkuntzaren historia garaitan banatzeko ohitura antzua litzatekeela barneko historiaren gertakari esanguratsuak ere islatzeko asmorik ez balu. Hala ere, ohikoa da, erosoagoa eta dudarik gabe pedagogikoagoa —batzuetan beharrezkotzat ere jo dezakegu, ikusiko dugunez— kanpoko historiaren gertakarietara jotzea, hala nola gertakari historikoetara, literaturaren gailurretara eta corpusaren berezitasunetara, hala garaiak mugatzeko nola garaiei izena emateko ere.

Gertakari historikoak aintzat hartzeak abantaila asko ditu, ondo hautatuz gero aditua ez denari ere delako garaia denboran erraz kokatzen laguntzen diotelako, besteak beste. Esate baterako, historialariek *Aro Garaikidea* Frantziako Iraultzatik gaur egun arte doan epe historikoari ematen dioten izena izanik, eroso da hizkuntzaren historian ere Frantziako Iraultzaren data mugarriztat hartzea edota ordutik aurrera doan hizkuntzaren historiaren garaiari ere *Aro Garaikidea* deitzea, bi historiak —gizartearena eta hizkuntzarena— bat eginda aurkezten baitira. Hona Fife-k (1992) bildu dituen adibideetako batzuk: *Erdi Aroko greziera* Konstantinopla sortu zenetik latindarrek hartu arte (1204) zabaltzen da; latin klasikoaren *Urrezko Aroa* Augusto enperadorearen heriotzarekin bukatzen da, eta *Norbegiera ertaina* Heriotza Beltzaren etorrerarekin (1349).

Beste horrenbeste gertatzen da literaturaren historiarekin: literatur hizkuntzaren bilakaeran izandako jauzi nabarmenak, egile edota testu bereziki garrantzitsuak... horrelakoak ere lagungarri izaten dira garaiak mugatu edo izendatzeko. Horixe islatzen du, esate baterako, espainolaren historiaren garai bati *Urrezko Mendearen hizkuntza* izena jarri izanak, XVI-XVII. mendeetan hainbat egile goren eta hainbat obra bikain sortu baitziren. Halaber, *Sanskrito klasikoa* Paniniren kodetzearekin hasten da (K.a. ~v. mn.), eta *Galesera modernoa* Dafydd ap Gwilym-en lan poetikoarekin (XIV. mn.).

Aukerak zabalak izanik, batzuetan bietara aurki daiteke garai bat mugaturik: adibidez, *Ingeles Zaharra* delakoaren bukaera normandiarren konkistarekin (XI. mn.) zein *Kronika anglosaxoia* delako testuarekin (1154) lotu ohi da (Fife 1992).

Corpusaren izaerari dagokiona ez da hain ezaguna, beharbada, baina adituentzat ezaugarri garrantzizkoak izan daitezke corpusean dauden jausiak edo asimetriak, garai bateko datuen nolakoa, datu eskasia, eta abar. Adibidez, *Nahuatl klasikoa* XVI-XVII. mendeetako bost gramatikatan baino gorde ez omen den hizkuntza da, eta *Nederlandera zaharra* perpaus bakar baten hizkuntza omen da, Nederlandera Ertaineko beste testu guztiak baino lehenagokoa.⁴ Garai oso bat ordezkatzeko lekukotasun bat edo gutxi batzuk baino ez izatea ez da hain bitxia: euskararen alorrean bertan, esate baterako, Donemiliagako euskarazko bi glosak (XI. mn.?) zeharo isolaturik daude Erdi Aroan, gutxienez 1400. urtera arte ez baitago euskarazko beste perpaus osorik (ik. 9. gaia).

Kanpoko historian oinarritzeko joera handia da, esan bezala gogoratzen erraza ere badelako, didaktikoa. Beharbada, beraz, ezinbestekoa da honela egitea, baina saiatu beharko ginateke barneko historian gehiago oinarritzen. Izan ere, badakigu herriaren historiak ez duela nahitaez zerikusirik hizkuntzaren historiarekin edo, bestela esanda, ez dagoela herri baten historiaren eta hizkuntzaren bilakaeraren arteko erabateko loturarik (ik. 1. gaia). Adibidez, lehen aipatu dugun gaztelaniaren sailkapen bakunean, gertakari politiko eta kulturalak izan dira irizpide bakarra, ez hizkuntzaren bilakaera: izan ere, ez fonologian, ez morfologian, ez eta lexikoan ere igartzen omen da 1500 inguruan aldaketa markagarriak: edo lehenago gertatu ziren, edo beranduago burutuko ziren.

Literaturarekiko loturari dagokionez, edo oro har literatur hizkuntzari dagokionez, literatur lekukotasunak oso kontuz erabili behar dira, batez ere obrarik jasoenak, zeren eta literatur hizkuntza bere bidetik joan ohi baita, ahozko hizkuntzatik bereizirik. Literatur lanetan maiz aurkitzen dira hala ahozko hizkuntzan zaharkituta dauden formak (arkaismoak) nola ahozkoan inoiz ezagutu ez diren edo oraindik orokortu ez direnak (berrikuntzak: mailegu jasoak, esaterako), besteak beste literatur hizkuntzak tradizioetik edaten duelako eta idazleek hizkuntzarekin jolastea maite dutelako. Adibidez, egun esango nuke *subjuntibo*zko baldintza dei dezakeguna (*ekar baneza, etor badadi...*) zeharo galdua dela ahozko euskaran, baina ez ginateke harrizko idazle batek erabiliko balu, lapurtera klasikoan ikas ditzakegun beste ezaugarri batzuk bezalaxe euskara jasoaren adierazle den heinean. Berriz, nekez har ditzakegu Lauaxetaren poemak bere garaiko bizkaieraren lekuko leialtzat, neologismo sabindarrak barra-barra darabiltzan eta hizperbizkaieraren zenbait ezaugarri bere egin zituen idazlea izanik. Honegatik, literatur lanak ezin dira inoiz ere garai baten hizkuntz lekukotasun bakartzat hartu, bestelako gutxi izan arren. Honegatik, halaber, gero eta interes gehiago jartzen zaie bestelakoei, nagusiki literatur hizkuntzak hainbeste baldintzatu ez dituen hiztunek utzitakoei (herritarren gutunak, kasu).

⁴ Adibideok ere Fife (1992) lanetik hartuak dira; esango nuke ez dela oso zehatz, bai batean eta bai bestean ere badirelako bestelako lekukotasunak (ugari omen nahuatlaren kasuan behintzat), baina beude horrela.

Edonola ere, literatur mugimenduen eta hizkuntz sistemaren garapenaren artean nolabaiteko isomorfismoak aurkeztea (“Urrezko Mendearen hizkuntza” bezalako deiturak erabiltzea) XIX. mendetik bide datorren ohitura baino ez da, orduan hizkuntza baten ordezkari gorentzat hartuak baitziren literaturaren aldetik ere gorenak zeritzenak. Nolanahi ere, orain arte ez du inork argudio sendoz frogatu literatur hizkuntzaren bilakaerak hizkuntzaren bilakaera baldintzatzen duenik (hizkuntza estandarrak bai, ordea: cf. euskara batuaren eragina euskalkietan).

Azkenik, Fife-ren ustetan (1992), bereizi beharko genituzke hizkuntz garaiak eta lekukotasun multzoak. Baina —laster ikusiko dugun bezala— praktikan oso zaila da, guztiz lekukotasun urriko garaietan.

Ondorioz, hainbatetan esan bezala, kanpoko historiara jotzea eroso izan daiteke, baita batzuetan ezinbestekoa ere agian, baina hizkuntzaren historiak ari garenez, badirudi nola edo hala barneko historia ere kontuan hartu beharko dela, edo —hobeto esanda— barneko historia batez ere, baldin eta garai banaketa ez bada izango konbentziosko sailkapen huts bat, mamitsu den zerbaitetan oinarritzen dena baizik. Honetarako zilegi da bietara begiratzea, aztertzen ari garen hizkuntzaren historiak ematen dizkigun aukeren arabera, baina kontuz ohartuz noiz bataz, noiz besteaz ari garen.

2.1.2.1. Barneko historia oinarri

Hizkuntzaren historialari askok —guztiz tradizio germanikokoek, dakigunez (1. gaia, § 3.1)— esango ligukete benetako esangura duen sailkapen bakarra barneko historian oinarritutakoa dela. Guk aurreratu berri dugu agian bietara jo beharra egon daitekeela, baina demagun lehentasunez barnekora jo nahi dugula ahaleginean. Zein irizpide erabiliko genituzke horrela jokatzekotan?

Idealki, hizkuntza baten historiaren horrelako periodizazio bat oinarrituta egon beharko litzateke hizkuntz atal guztien (fonologia, morfologia, sintaxi eta lexikoaren) aldaketa garrantzizkoetan (Tai & Chan 1999). Ingelesaren historiaren periodizazioa izpiritu horrexekin egina da. Hiru aro nagusitan banatzen da: *Ingeles Zaharra* (450-1150), *Ingeles Ertaina* (1150-1500) eta *Ingeles Modernoa* (1500dik aurrera). Ingeles Zaharra flexiodun hizkuntza zen, hots, izenek-eta kasua ere hartzen zuten (nominatiboa, akusatiboa, genitiboa eta datiboa zituen, baita instrumentalaren hondarrak ere), euskararen bezalatsu. Adituek flexioaren egoera aldaketak (flexio osoa > flexio gutxitua > flexiorik ez) hautatu dituzte aro horiek ezaugarritzatzeko; halere, morfologia ez da irizpide bakarra: flexio-aldaketekin bateratsu funtsezko aldaketa fonologiko eta sintaktikoak ere gertatu ziren.

Adostasuna dago ingelesaren periodizazioan, ez bakarrik aro nagusien kopuruan, baita aro bakoitzean gertatu ziren aldaketa nagusietan ere. Alabaina, hizkuntzaren atal guztiak nola edo hala aldi berean edo bertsuan aldatzen diren uneak bakanak dira historia ezaguneko hizkuntzetan. Aitzitik, atal bakoitza bere erritmoan aldatuz doa, eta batzuetan azpiatal bakoitza ere.

Beraz, Tai & Chan-ek (1999) iradokitzen dute hizkuntzaren ataletan hierarkiarik ezarri gero, zein baino zein den honetan garrantzizkoago, oro har hizkuntzaren osagai iraunkor eta aldagaitzenak lehenetsi beharko liratekeela: gramatika dudarik gabe (hots, morfologia eta sintaxia), bai eta oinarritzko lexikoa ere, agian.⁵ Esate baterako, aldaketa

⁵ Aldatzen gaitzagoak diren hizkuntza bateko item lexikoen taldea, gizakiaren esperientzian arunt eta unibertsalenak direnak, hala nola gorputz-atalak (*oina, begia...*), ingurugiroko unibertsalak (*ura, izarra...*), ekintza aruntak (*jan, lo egin*) eta zenbaki txikiak (*bat, bi, hiru...*; definizioa hemendik:

lexikoa balitz periodizazioaren oinarria, berez hain aldakorra denez, ia-ia esan liteke zenbat belaunaldi hainbat garai bereizi beharko genituzkeela: zentzugabeko periodizazio batera eramango gintuzke honek.

Dena dela, gramatika lehenestea zentzuzkotzat izanik ere, Tai & Chan-ek fonologia jarriko lukete lehen lekuan txineraren periodizazioan. Hortaz, pentsa liteke euren ustetan hautua ezberdina izan litekeela, hizkuntzaren araberakoa.

2.2. Euskararen historiaren periodizazioa: orain arteko saioak

Euskararen historiaren periodizazioa ez da oraintsu arte lehenesten artean sartu. Ez da harritzekoa, kontuan harturik, batetik, euskarak historia duela eta aldatu dela ere ukatu izan dela batzuetan; eta, bestetik, gehienbat euskararen etorkiari buruzko gaietan aritu izana (cf. 1. gaia).

Periodizazioa erabili erabiltzen da, ostera, hala literaturaren historietan —esan bezala, alor honek bakarrik eman ditu euskararen historiarekin lotuta dauden eskuliburuak ugari— nola euskararen historia azaltzeko lehen saio dibulгатiboetan. Haatik, erabilitako irizpideak ez dira azaldu ohi eta, beraz, ondoriozta dezakegu ez dagoela periodizazioaren gaineko gogoetarik, gaia nolabait zatitu beharraz besterik. Bakoitzaren helburu ezberdinak gehitzen badizkiogu, ondorioa izan da proposamenak beren artean oso ezberdinak izatea.

2.2.1. Orain arteko saioak

Lakarrak (1997) proposamen berririk egin aurretik aurrekoen on-gaitzak eztabaidatzea komeni delakoan, zenbait periodizazio hautatu zituen eta iruzkindu.

Aurreko saioan arazo orokorra galdera honetan datza: helburua zein da? Guztiek bat egiten dituen ezaugarri argia da hizkuntzaren sistematik kanpoko arrazoietan —literaturan edota literatur hizkuntzan, hizkuntzaren soziologian edo Euskal Herriaren Historia orokorrean— oinarrituak izatea, berehala ikusiko dugunez. Edonola ere, batek ere ez du kontuan hartzen barneko historiari dagokion ezer.

2.2.1.1. Ibar (1935) eta Sarasola (1976)

Justo Mari Mokoroa “Ibar”-en saioa ez da berez periodizazio bat, euskararen bilakabideaz kezkatuta dagoen euskaltzale batek egindako sinplifikazioa baizik, baina bestek baino arrakasta handiagoa izan du, luzaro literatur historia guztietan islatu baita aldaketa handirik gabe:

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Axulartarrak 2. Larramenditarrak 3. Bere garaikideak (“los modernos”) [4. 1964 ondoko literatura] |
|---|

Ibarren asmoa bere garaikideek —guztiz bere lurraldean, Bizkaian— erabiltzen ari ziren literatur hizkuntzari aurre egitea zen. Honetarako, euskararen historia “Hegoaldea vs. Iparraldea” historia bat balitz bezala aurkeztu zuen, zeinetan Iparraldea eredugarri izan den beti, eta Hegoaldea egin beharko ez litzatekeenaren eredu. Iparraldean, haren ustez, beti idatzi dute euskaraz euskaldunentzat, eta herriak ulertzeko

<<http://www.dictionary.com/browse/basic-vocabulary>>). Dena dela, kontzeptua argia eta ulergarria den arren, esan behar da adituek zailtasun handiak dituztela praktikan oinarritzko lexikoa zein den erabakitzeko. Honetaz jardungo dugu, aldez bederen, aurrerago (ik. 3. gaia, glotokroonologiaz).

moduko hizkuntza batean (Axularren eredua); Hegoaldean, aldiz, askoz gehiago idatzi dute erdaraz eta erdaldunentzat, hauekiko norgehiagokan harrokeriak esan beharrez (Larramendiren eredua), eta euskaraz idaztekoan ere garbizaletasun zoroak jota. Hegoaldearen patu latz honen azken urratsa, Ibarren ustetan, bere garaikideek darabilten euskara ulertezina litzateke, garbizale amorratua, irakurleengandik hain urrun zekusena. Ibarren argudiaketa hau gerraondoko euskalarientzat (cf. Mitxelena 1960), euskararen historia ulertzeko paradigma bihurtu zen.

4. garaia Sarasolak (1976) erantsia da. Urteak ere igaroak ziren eta ezinbestean literatur belaunaldi berriago baten bozeramaile gisa 1964an jartzea Ibarren 3. garaia amaiara eta berri baten hasiera.

Euskararen historia ulertzeko Ibarren eta ondokoen modua eztabaidatzea beste baterako utzirik (cf. Urgell 1991), sailkapen honek arazoak ditu alde guztietatik, baina bitan utziko ditugu. Alde batetik, Axularren aurreko garai bat behintzat ere erantsi beharko litzaioke, Etxepare, Leizarraga eta Lazarraga kokatzeko, bai eta hauek baino lehenagoko kontuak ere, jakina. Bestetik, 1. eta 2. garaien arteko etena garbia bada ere, ez dago horrelako eten garbirik 2. eta 3. garaien artean, zeren eta Ibarrek Larramendirengan bilatu baitzituen bere garaiak aurkitzen zuen izurriaren erroak.

2.2.1.2. *Intxausti (1990)*

Joseba Intxaustiren zabalkunde lana (*Euskara, euskaldunon hizkuntza*, 1990) berariaz aurkeztu diren periodizazio saio bakanetatik bat dugu:

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Historiaurretik Erromaren erorikoa arte 2. Erdi Aroa 3. Aro Modernoa (1545-1789) 4. Aro Garaikidea (1789-1936) 5. [Azken] Berrogeitamar urte (1937-1987) |
|---|

Intxaustik berak aitortzen du ez dela filologia, soziolinguistika baizik, ardatz duena. Hala eta guztiz ere, historiaurrea eta protohistoria, biak jasotzea aurrerapausu handia dugu aurrekoaren aldean, baina historiaurrea eta protohistoriaren lehen zatia (akitaniera) elkarrekin ematea ez da batere egokia guretzat, lekukotasunik ezaren gainean era batera lan egiten dugulako, eta nolabaiteko lekukotasunak ditugunean bestera.

Aro Modernoa Etxepareekin hasten da (1545) eta Frantziako Iraultzaren datarekin bukatzen (1789). Muga ezartzeko Europako historiari begiratu dio, bai eta hurrengo garaia izena emateko ere: Frantziako Iraultzaren data Aro Garaikidearen hasiera baita, izan ere, Europan. Halere, 1545-1789 tartea zabalegia da hizkuntzaren bilakaeraren aldetik, zeren eta bilduko ez genituzkeenak biltzen baititu, alegia, euskalki berekoak izanik ere nabarmen garai ezberdinetakoak diren lekukotasunak:

Etxepare (1545) — Alfontsa Rodriguez (1782)
 Leizarraga (1571) — Haraneder (1750)
 RS (1596) — Olaetxea (1763)

Aldi berean, 1789ko muga zurrunegia da, bilduko genituzkeen idazleak bereizten baititu; izan ere, muga horren alde banatan gelditzen dira denak larramenditarrak diren idazleak, are bata bestearen nolabaiteko jarraitzaileak direnak ere:

Mendiburu (1747) — Agirre Asteasukoa (1803)
 Ubillos (1785) — Añibarro (1802)

5. garaiari dagokionez (1937-1987), 1936 egiazko muga ote? Kanpoko historiaren aldetik ez dago dudarik badela, baina ezetz erantzun behar barneko historiaren aldetik: gerra hark euskaldunak biziki kaltetu zituen, eta gerra ondoan euskararen egoera biziki okertu zen, baina euskarak berak bere horretan iraun zuen, Frantziako eta Errusiako Iraultzen ondoren frantsesak eta errusierak bezalaxe. Areago, 1936ko data horren ondoren ez zen ezer ere aldatu literatur hizkuntzaren aldetik ere (ik. beherago, § 2.3.1.5). Bestalde, corpusaren hizkuntz homogeneotasunari begira bada 1937-1987ko tarte horretan euskararen historia nahikoa aldatzen hasi den zerbait: euskara batua.

2.2.1.3. Zuazo (1995)

Towards a History... liburuan gehiena euskararen historiari eskainia bada ere, Koldo Zuazori egokitu zitzaion “An overview of the external history of the Basque language” atala egitea. Berak ere bost garai ezarri zituen, Intxaustik bezala, baina ez datoz bat harenekin, ezpada jadanik eztabaidatu dugun 1936ko mugan:

1. Euskararen historiaurre luzea
2. XVI eta XVII. mendeak
3. XVIII eta XIX. mendeak
4. 1876-1936
5. Gerraondoko garaia

Historiaurrea batean emanda dago, zuzen, baina gure ikuspegitik zuzenago bide da protohistoriako uneak bereiziko balira. Gainerakoan bi ezaugarri ditu sailkapen honek: mendekako banaketa ardatz izatea eta Euskal Herriko historiari begiratzea. Mendekako banaketa Mitxelenak ere (1960) erabili zuen bere aldian, nahiz modu ezberdinean antolatuta.⁶ Zilegi eta txukuna da, noski, baina sakontasunik gabekoa: garbi esanik, zer egin ez dakizunean erabili ohi den irtenbidea. Bestalde, 4. garaiaren mugak ezartzerakoan Zuazok Europako historiari begiratu beharrean, Intxaustik bezala, Euskal Herrikoari begiratu dio, bere periodizazioan II. Karlistadaren bukaerarekin hasten baita eta Gerra Zibilarekin bukatzen: azken batean, bistan denez, Zuazok aintzat hartu du 4. garai honetarako “Euskal Pizkundea” kontzeptua, literaturaren historian ohikoa.

2.3. Lakarraren proposamena

Barneko irizpide horiek eta beste batzuk gogoan izanik, Lakarrak (1997b: 516) ondoko proposamena egin zuen, “zirriborro gisa bada ere”:

1. Akitaniera (I-III. mendeak)
2. Erdi Aroko euskara (IX-XV. mendeak)
3. Euskara arkaikoa (1600 arte)
4. Euskara zahar eta klasikoa (1600-1745)
5. Lehen euskara modernoa (1745-1890)
6. Azken euskara modernoa (1891-1968)
7. Euskara batua (1968-)

Proposatutako garaietan bost (3-7) zehazki Historiakoak dira, eta beste biak (1-2) Protohistoriakoak, hau da, zeharkako dokumentazioa baino ez dagoen garaiak dira: (1) latinezko idazkUNETAN jasotako antroponimoak eta teonimoak; (2) latinezko eta

⁶ Hauek dira Mitxelenaren literaturaren historiako garaiak: 1. “Orígenes. Siglo XVI”; 2. “Siglo XVII”; “3. De 1700 a 1850” eta “De 1850 hasta nuestros días”.

erromantzezko Erdi Aroko dokumentazioan sakabanatutako antroponimoak, toponimoak, hitzak eta perpaus laburrak.

Lakarraren irizpideak mistoak dira, alegia, batzuetan barneko historiaren arrazoiek agintzen dute, eta bestetan kanpoko historiarenak. Funtsean, bere asmoa zen barneko gertakariak lehenestea garaiak definitzerakoan, baina hori ezinezkoa denean batez ere corpusaren izaerari edo literatur hizkuntzak izandako aldaketa esanguratsuei dagozkien irizpideak baliatu zituen. Lehen aukera Euskara Arkaikoaren eta Euskara Zaharraren arteko banaketan (1600) dago islatuta, morfologia (ablatiboa, aditz sistema) eta fonologia (bokal sudurkarien eta apikari/bizkarkari oposaketaren galera Mendebaldean) batik bat eragiten duten hizkuntz aldaketa sorta batean oinarritua baita.

Bigarren aukeraren adibide egokia dugu akitanierazko idazkunen corpusarena: beren kronologiagatik (K. o. I-III. mendeak) —baina baita hizkuntzazko ezaugarriren bategatik— ondo bereiz baitezakegu Erdi Aroko dokumentaziotik (IX-X. mendetik aitzina).

Hirugarren aukerari dagokionez, 1600dik aurrera (Euskara Zaharraren hasieratik) ez dirudi garaikako banaketa egiteko barneko arrazoirik dagoenik; halere, Larramendik (1728-1745) abian jarritako euskararen gramatizazio prozesuak argi eta garbi bereizten du Lehen Euskara Modernoko literatur hizkuntza; halaber, garai honen bukaera eta ondokoaren hasiera ere, 1891etik aurrera S. Arana Goiri eta R.M. Azkue buru izango zituen gramatizazio prozesu berriak markatuko lituzke, eta berdin 1968tik aurrera Euskaltzaindiak egindako lanek.

2.3.1. Lakarraren arrazoiak eta zalantzak

Zirriborro gisako saio horrek aitzakia eman zion Lakarrari bere buruari, eta bidenabar gainerako euskalari ei ere, jakina, zenbait galdera egiteko, hots, funtsean, euskararen historiaren periodizazioak dituen zailtasunez mintzatzeko.

2.3.1.1. (1) eta (2) garaiak

▪ Aitzineuskara sartuko?

Akitaniera kontuan hartzeak gauzak nahikoa zailtzen ditu, geroko jauziagatik batez ere (III-IX. mende bitartekoa). Periodizazioa gehiago zaildu genezake aitzineuskara ere sartuaz, hots, fonetikaren arloan Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca*-n islatzen duen garai hipotetiko hura, gure Eraren hasieran koka litekeena. Izan ere, aitzineuskara hura (orain Aitzineuskara Modernoa deritzaguna; ik. 4. gaia) osoki fonologian oinarritua denez gero, zer esan genezake garai horretako morfologiaz? Adibidez, euskara historikoko pluraleko deklinabidea Erdi Arotik aurrera ederto lekukotuak diren *-aga* eta *-eta* atzizkiekin lotua izan da (*-ak* < **-aga*, *-etan* < **-eta-n*; ik. 9. gaia). Baina, noizkoa da pluraleko deklinabidearen paradigma? Mitxelenak aitzineuskararako proposatu duen *lenis* / *fortis* bereizkuntzaren garaikide izan ote da inoiz?

▪ Geroko jauzia nola azalduko?

Sailkapenaren atal guztiak lotzea ez da beharrezkoa. Aitzinhizkuntza baten berreraiketa egiten dugunean gerta daiteke halako batean konturatzea garai bat baino gehiagoz ari garela. Adibidez, indoeuoperaren berreraiketean hiru garai ezberdinez mintzatzen da: “indoeuopera klasikoa”, “2. indoeuopera” eta “3. indoeuopera” (zaharrena, flexiorik ez duena...). Berbera gerta dakiguke euskararekin ere,agian.

▪ (1) eta (2) nola bereizten?

Akitaniera eta Erdi Aroko euskara bereizi ohi dira bigarreanean hitz eraketako bilakabideak —elkarketa eta eratorpeneko bokal erorketa eta neutralizazioak, kontsonante erorketa eta aldaketak— gertatzen direlako, eta lehenengoan ez:

trinkotzea: $e, o > a$

akit. *Anderexo, Cissonbonnis*

E.A. *Anderazo* (1035), *Guiçairudiaga* (1257)

2.3.1.2. (2) eta (3) garaiak

1997ko lanean Erdi Aroko euskara eta Euskara Arkaikoa funtsean garai bera direla baieztatu zuen Lakarrak, eta soilik lekukotasunen kalitate eta kopuruak bereizten dituela, 1545 arte esateko moduan ez baitago euskaraz idatzitako testurik. Geroago ikusiko dugunez, ikuspegi hori aldatu du denborarekin.

2.3.1.3. (3) eta (4) garaiak

Euskara Arkaikoaren eta Euskara Zaharraren arteko banaketa da bete-betean barneko historiaren arrazoietan sendotua den bakarra, esan bezala. Izan ere, 1600dik aurrera arkaismo zenbait osoki galdu ziren eta berrikuntza zenbait abian jarri:

- Ez dago aoristorik, salbuespenak salbuespen.
- Bokal sudurkariak Ekialdetik landa ia osoki desagertu dira.
- Adizkietako uzkurdurak orduantxe hasten dira agertzen (*egingot, esaeutsan...*).
- Aditz trinkoen erabilera murriztuz doa.
- Mendebalean oraindik *-rean* ablatiboa eta *-ti* prosekutiboa bereizten dira, baina ez gainerako eremuetan.
- Mendebalean hastapenetan dago txistukari neutralizazioa.

Garai arteko mugak askotan heterogeneoak izaten dira, eta halaxe gertatzen zaigu guri ere: Akitaniera eta Erdi Aroko euskararen artean bereizteko argudioak fonetikoak dira (morfologiaz oso gutxi dakigu eta); aldiz, 1600. urtean kokatu duguna gehiago oinarritzen da morfologian fonetikan baino, eta Lakarrak ez du aurkitu sintaxiaren araberrako etenik, baina inguruko hizkuntzetan ere kontuak halatsu dabilta.

2.3.1.3. (4) eta (5) garaiak

Bi garai hauek bereizteko, funtsean literatur hizkuntzaren bilakabideari lotu zaio Lakarra: Larramendiren lanen ondorioz lexiko zainduagoa, eratorpenaren ugaltzea, oro har maila jasoagoa eta sintaxi periodo zabalagoak ditugu Hegoaldean ere.

2.3.1.4. (5) eta (6) garaiak

1891n jarri zuen Lakarrak —eta ez 1876an edo 1903an— Azken Euskara Modernoaren hasiera, Mitxelenaz geroztik bederen 1876an gertatu Hegoaldeko Hiru Probintzien foruen galerari halako garrantzi bat aitortu bazaio ere, “Euskal Pizkundera” deitu ohi zaion literatur garaia dela eta. Halere, data horrek ez dakar Larramendiren eraginaren hondamena, justu alderantzizkoa baizik (cf. Pagola 1984).

Politika eta kulturako gertakariei baino, nahiago izan du Lakarrak euskararen egoera-aldaketari begiratu: 1884an hasi zen *Eskualduna* Iparraldeko aldizkari eraginkorra kaleratzen, eta 1891n argitaratu zen Azkueren *Euskal Izkindea* gramatika —hiperbizkaieraren oinarri izango zena (Laka 1986)— esanguratsua go begitantzen zaizkio hizkuntzaren historiarako.

2.3.1.5. (6) eta (7) garaiak

Bukaerari dagokionez, Hegoaldean bertan ere ez zaio iruditzen 1937koa eten nabarmena denik barneko ikuspegitik, ez eta euskara idatziaren aldetik ere: gerra aurrean sabindar zirenek sabindar jarraitzen dute ondoren ere, eta azkuetarrek zirenek ere azkuetar.

Hasierari dagokionez, berriz, 1968 baino lehen ere aurki liteke gero garaile atera den hizkera estandarraren, hots, euskara batuaren zantzurik —Arestiren *Maldan Behera* (1959) adibide gailena da (Zuazo 1989: 272)—, baina Arantzazuko biltzarrak eman zion onspena esanguratsu gertatu zen ondoko emaitzetarako (Zuazo 1988).

2.3.1.6. Beste galdera bat

Lakarraren saioa aztertuta burura dakigukeen galdera da, historiako garaiak (4, 5 eta 6) Euskara Batuaren Aroa arte nagusiki Hegoaldeko bilakabidean oinarrituak izanik, noraino heda daitezke euskararen historia osora? Edo, bestela esanda, honela edo bestela, Euskal Herri osorako balio dezakeen periodizaziorik egiterik ba ote?

Lakarra (1997)-z geroz bi aldeak elkarrekin aztertzeko ahalegina egin eta gero (cf. Gorrochategui, Igartua & Lakarra 2013), galderari baietz erantzungo diogu, ezezko erantzuna hein handi batean Ibarren “Iparraldea vs. Hegoaldea” banaketa zurrunean — eta, gure ustez, okerrean— oinarrituta bailegoke. Adibidez, honela definitu daiteke Lehen Euskara Modernoaren literatur hizkuntza Euskal Herri osoan:

Egileek gaingiroki egitasmo bera, hizkuntz baliabide berak eta literatur tradizio bera konpartitzen dituzte. Adostasun nahikoa sumatzen da, halaber, irizpide lexikoetan, eta norabide bertsua grafi sistemaren bilakaeran. Ordea, ez zen estandar bakarra landu, baizik eta lau literatur euskalki (zuberera, lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera), nahiz beren artean nahiko homogeneoak eta elkarren eraginei aski irekiak izan (Urgell 2013b: 1).

Dena dela, Lakarrak berak esaten digu aurreko guztia “etorkizuneko hainbat lan beharrezkoren iragarpen eta akuilu bezala” hartu behar dela.

2.3.2. Lakarra (1997)-ren ondorenak

Lakarra & Gorrochategui (2001) proposamenak Lakarra (1997)-ko xehetasun batzuk aldatu zituen. Garrantzizkoena Euskara Arkaikoa 1500 eta 1600 artean mugatu izana da eta, hortaz, etenik gabe Erdi Aroan sartzen den garaia izateari utzi izana. Núñez Astrain (2003) lanean ere badaude Lakarra (1997)-rekiko aldaketa txixkiak, darabilen ikuspegi zentzuzko baina dibulgatzaileagoari egokitu nahiz egindakoak.

Azkenotan izan den aldaketa esanguratsuena, alde handiz, Euskara Arkaikoa bera 1400 arte mende batez zabaldu izana da; aldaketa hau ahozko tradiziotik datozen testuen (atsotitzen, baladen eta eresien) lekukotasuna zehatzago aztertu izanaren ondorio da, hots, idatziz noiz jarri ziren kontuan hartu beharrean, noiz sortu bide ziren aintzat hartu izanaren ondorio, zeren eta garai bereko beste testuen aldean, horrelako testuek anitz ezaugarritan lehenagokoa den hizkuntz egoera baten berri aski gorde baitituzte, Euskara Arkaikoa ahozko testuok ondu ziren garaituraino zabaltzeko moduan (Mounole & Lakarra 2015).

Aldaketa hau ez da, beraz, anekdota hutsa. Garbi adierazten digu hizkuntzaren historiaren periodizazioa ezin daitekeela ez automatiko, ezta lineal ere izan, baizik eta zehazten zailago den zerbaitetik abiatu beharra dela: “hizkuntz egoera” deritzagunetik. Adibidez, *Refranes y Sentencias* (1596) Euskara Arkaikoko testurik modernoena da argitaratze datari begiratu gero, baina haren hizkuntz egoerari begiratu gero zaharrenetakoa da, gutxienez mende batez lehenagokoa. Eta hori nolatan? Ezaguna

denez, atsotitzak buruz ikasten dira, eta buruz errepikatzen dira belaunaldiz belaunaldi (ia) aldaketarik gabe. Honexek gorde ditu testu horretan, eta bera bezalakoetan, idatziz jarri ziren garaian dagoeneko galdurik edo galtzar ziren hainbat forma. Bestalde, irizpide hau onartuz gero, bistan da Euskara Arkaikoaren corpusean (1400-1600) sartu behar ditugula baita Oihenarten atsotitz bildumak (1657, 1665) eta garai bertsuko Zalgize, Bela eta Martínez de Isastirenak ere, nahiz idatziz jarri edo argitaratu ziren datari begiratu gero Euskara Zaharrean kokatzekoak lirakeen.

Amaitzeko, gogoan hartuko dugu egun hiru garai hipotetiko erabiltzen ditugula euskararen historiaurrea azaltzeko, hau da, hiru aitzinhizkuntza: Aitzineuskara Zaharra (AEZ) —berreraiketarik zaharrena, Lakarra (1995) lanetik aurrerakoa (ik. 5. gaia)—, Aitzineuskara Berria (AEB) —Mitxelenaren (1957, 1977) berreraiketa estandarra (ik. 4. gaia)— eta Euskara Batu Zaharra (EBZ) — Mitxelenaren (1981) hipotesiaren arabera gugandik hurbilen dagokeen aitzinhizkuntza, euskara historikoaren dialektoen ama-hizkuntza edo lehenagoko hizkuntz egoera—. Lakarrak (1997) behin-behinean alde batera utzi zituen bere periodizazioan, bi arrazoigatik utzi ere. Batetik, aitzinhizkuntzok denboran zehatz kokatzea berez oso zaila da, agian ezinezkoa. Bestetik, gorago azaldu bezala, orduan, AEZaren berreraiketaren lehen urratsetan baino ez zebilela, oso-oso zaila zen AEMaren berreraiketaren eta morfologiaren berreraiketen artean kronologia gurutzatuak ezartzea. Berrar dezagun gure goiko adibidea, eta zehatz dezagun: pluraleko deklinabidearen sistema, dudarik gabe erlatiboki modernoa, ezin AEMkoa izan, ezta ere EBZ zaharrenekoa ere, ziurrenik Behe Erdi Arokoa baizik, artikularen sorrera berankorrarekin lotua den heinean (ik. 9. gaia). Nolako zatekeen, beraz, Izen Sintagmaren egitura AEMan? Hau bezalako galderak ez zuten erantzunik 1997an, eta ez dute erantzunik gaur egun ere.

Gainerakoan, Lakarrak saio gisa baino eskaini ez bazuen ere, 1997ko periodizazioa denborarekin kanoniko bihurtu da adituen artean, bai eta bibliografia katalogatzean erabili ere (ikus <http://catalogo.fsancho-sabio.es/>). Komenigarri ez ezik beharrezkoa ere bazelako seinale.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Lakarra 1997b: "Hizkuntzaren historiaren arazo berezi bat: periodizazioa" (511-517).
 Tai & Chan 1999 (gehiago sakontzeko).
 Fife 1992 (periodizazioetako irizpideez).

BIBLIOGRAFIA [egitasmoan dagoenaz gainerakoa]

- Abad Nebot, Francisco, 1998, "Problemas de periodización y caracterización en Historia de la lengua literaria española", *Epos* 14: 493-514.
 Altuna, Patxi, 1979, *Etxepareren hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
 Arana Martija, Jose Antonio, 1994, "Euskal Herriko inprentaren historia", *Uztaro* 12, 37-53.
 Aresti, Gabriel, 1973, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", *FLV* 5, 61-128.
 Buenafuentes de la Mata, Cristina, 2002, "Cambio gramatical y periodización en español", *Res Diachronicae* 1: 96-105.
 Eberenz, Rolf, 1991, "Castellano antiguo y español moderno. Reflexiones sobre la periodización en la historia de la lengua", *Revista de Filología Española* 71-1/2: 79-106.
 Fernández de Casadevante, M^a Dolores, 2015, *La imprenta en Guipúzcoa (1585-1850)*. Madril: ADI.
 Laka, Itziar, 1986, "Euskal Izkindea-ko aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)", *ASJU* 20-3: 705-754.

- Gorrochategui, Joaquín & J. A. Lakarra, 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del Protovasco”. F. Villar & M. P. Fernández, *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca: Universidad de Salamanca, 407-438.
- Lakarra, Joseba A. & C. Mounole, 2015, “Euskara Arkaikoa”. J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (argitaratzeko).
- Maiora, Fernando, 2011, *Reino de Navarra. Euskera: Injurias, coplas, frases*. Iruñea: Egilearen argitalpena.
- Mitxelena, Koldo, 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro.
- Padilla, Manuel, 2017, *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI - XIX. mendeak*. Gasteiz: UPV/EHUko tesia.
- Pagola, Inés, 1984, “Neologismos en los Juegos Florales”, *ASJU* 18-1: 55-159.
- Salaberri Muñoa, Patxi, 2011 [2007], “Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak”. J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell, *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra)* Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU: 201-216.
- Urgell, Blanca, 1986, “Prai Bartolomeren hiztegiak zertxobait”, *ASJU* 20:3, 857-866.
- , 1991, “Axular eta Larramendi”, *ASJU* 25-3: 901-928. Lehenago in Lakarra (arg.) 1992a, 221-246.
- , 2001, *Añibarro, Fr. Pedro Antonio. Guero. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 2013a, “Euskal Filologia: zer (ez) dakigu 25 urte beranduago?” R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole, *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz, 2012 / X / 8-11)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU: 533-570.
- , 2013b, “Lehen Euskara Modernoa (1745-1875)”. J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (argitaratzeko).
- Zuazo, Koldo, 1988, *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1989, “Euskara batua: aitzindariak eta beste”, *Euskera* 34-1: 265-272.